

2007KO MAIATZAREN 8KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko maiatzaren zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Xabier Arrasate Aierbe eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Gorka Lamy Insausti zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Estensoro Eskisabel eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko martxoaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZA LANEN 5. ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen 5. zertifikazioa luzatu du. Bosgarren zertifikazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA HAMALAU MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA BI EURO eta HAMAIIKA ZENTIMOTakoa (74.692,11 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa-Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Une honetan bertaratu dira Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen bosgarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

IV.- 1 SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA.-

Indarrean dauden Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartuak izan ziren, Diputatuen Kontseiluak 1991ko irailaren 24an egindako batzaraldian.

Ari gareneko guneari ukitzen dion arau subsidiario hauen 1 Sektorea eta 10 eta 12 Hirigintz Areak aldaketa 2003ko uztailaren 29ko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen behin betikoz.

Arau Subsidiario hauen garapenaren barruan, eta Lazkaoko Udalak sustatu eta izapidatua izan ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2004ko abenduaren 14an egindako batzaraldian, 1 Sektoreko Plan Partziala onartu zuen behin betikoz.

Plan Partzial honen garapenean 2005eko ekainaren 27an onartu zen 1 Sektoreko Birpartzelazio Proiektua eta 2005eko irailaren 25ean 1 Sektoreko Urbanizazio Proiektua.

Onartutako 1 Sektoreko Plan partzialarekiko honako gaiak planteatzen dira plan partzialaren aldaketa honetan:

- Onartutako 1 Sektoreko Birpartzelazio Proiektua eta arkitectura proiektuaren arteko gurutzatzearen ondoriozko emaitzera lotzea lursailen definizioa. Horrela "U" itxurako eraikinean lursail eraikigarri bat gehiago ateratzen da, eta beraz hau honako hiru lursail eraikigarritz osatuta gelditzen da: PR1, PR5 eta PR2. Halaber honek behe solairuetako azpiko pasabideak berriro definitu araztea dakar, plaza eta atzeko bidearen artean pasabidea proposatzen delarik lehendik Maizpide Euskaltegia eta plazaren artean aurrikusitakoaz gain.
- PR2 lursaileko bigarren sotoan aurrikusitako aprobetxamenduaren zenbatekoa bere definizio geografikoaren parera jartzea.
- Intxaurrondo eraikinarentzat aurrikusitako kokapena aldatzea, eraikin honek PR3 lursailarekin batera osatzen duten oinezko gunean pasabide zabalagoa utziz. Halaber goiko solairuetako etxebizitza kopuruari dagozkien garaje-leku zenbatekoa izango duen soto solairua ematea proposatzen da.
- 16.5 artikulua aldatzea, indarrean dagoen plan partzialeko PR1 eta PR2 egoitza lursailetan, aldatutako plan partzial honen PR1, PR5 eta PR2 lursailak izango liratekenak, teilatuazpiko solairuetan plaza aldera terrazak ateratzea baimenduz.
- Halaber, etxebizitza zenbatekoari dagokionean, zenbateko maximoa indarrean-go arau subsidiarioetako 40. artikulua dioenera joko da, edo bestela eta behin

betikoz onartuko balira, Lazkaoko Arau Subsidiarioetako Berrikuspen Proiektuaren Arau Orokorretako 3.2.7 artikuluan xedatutakora.

1. Sektoreko Plan partzialaren aldaketa hau 2007ko martxoaren 6ko dataz izan zen hasierakoz onartua, alkatetzaren ebazpen bidez.

Plan partzialaren aldaketa dokumentua jendaurrean egon da erakutsita hogeigunetako denboraldian, iragarkiak 2007ko martxoaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2007ko martxoaren 13ko Berria eta 2007ko martxoaren 15eko Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratu direlarik.

Jendaurreko denboraldian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Hirigintza Batzordearen proposamenaren aurrean, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, bere 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1. Sektoreko Plan Partzialaren Aldaketa behi betikoz onartzea.

2.- 1. Sektoreko Plan Partzialaren Aldaketaren onarpena eta dokumentua bera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzea.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa honetan aurrikusten den Beneditarren artxiborako dirulaguntza gauzatu aurretik artxibo-liburutegi horretarako egingo den eraikinaren lurzoruaren jabetzari buruzko xehetasunak argitu beharko direla esaten du.

Une honetan Serna zinegotzia bertaratu da.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du Beneditarren artxibo-liburutegia eraikin berrirako dirulaguntzari zailtza bat dutela eta zailtza hori artxibo-liburutegia eraikiko den eraikinaren luraren jabetza nola dagoenari buruzkoa dela, ze badiardi luraren jabetza Dukearena dela, eta beraien ustez egunen batean Beneditarrek Lazkaotik joango balira artxibo eraikina Lazkaoko Udalaren esku gelditu beharko litzateke, eta gaur egungo egoeran hori ez da bermatzen eta hori horrela izanik dirulaguntza hori ematearen aurka daudela eta beraz kreditu aldaketa honen aurka bozkatuko duela.

Alkateak esaten dio aurretik esan den bezala, kreditu aldaketa honetan dirulaguntza horretarako partida jartzen bada ere, dirulaguntza hori eman aurretik beste urrats bat gelditzen dela eta hori lurraren jabetzarena argitzea dela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aldeko 9 botu (EAJ, EA, PP) eta aurkako botu batez (PSOE), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	23.000,00 €
VII	Kapital transferentziak	120.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		143.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
IX	Finantza pasiboak	143.000,00 €
GUZTIRA		143.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du Serna zinegotzia zoriontzen duela aurreko puntuan bere hitzaldia euskaraz egin duelako.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.